

IRAKI ERASOTZEKO ASMOA

NATOk Turkia defendatzeko planak abiatzea eragotzi dute hiru estatu kidek

ITOIZKO URTEGIA

Europak Gobernuaren kontrako ebazpena emanaz gero, ez dutela aintzat hartuko dio Iturriagagoitiak /13

FISKALITATEA

EAEko Finantza Kontseiluak Jarduera Ekonomikoen Zerga aldatzea onartu du, Araba kontra egonik

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan urtean bi milioi eurotik behera fakturazten duten enpresek ez dute Jarduera Ekonomikoen Zerga ordaindu beharrik izango. EAEko Finantza Kontseiluak atzo hartu zuen erabakia, Arabako Foru Aldundiko ordezkarien kontrako botoarekin. /17

EKIALDE HURBILA

PANek Zisjordaniako hirien kontrola berreskuratzeko plan bat aurkeztu dio Israeli /22

MAREA BELTZA

Galipotak berdelaren eta antxoaren kosteran izango duen eraginaz kezkatuta dira arrantzaleak /33-34

BETOA. Frantziaren eta Belgikaren betoa babestu egin du Alemaniak, eta krisia eragin NATOren baitan

ANKARA. Aliantzaren IV. artikuluari heldu dio Turkiak, lehen aldiz, bere segurtasuna «arriskuan» dagoela eta

WASHINGTON. Bilateraliki jokatzeko prest dira AEBak, eta Powellek esan du Turkia laguntzeko «betekizuna» duela NATOk

NATOren historian lehen aldiz, estatu kide batek Aliantzaren IV. artikuluari heldu dio, bere segurtasuna «arriskuan» ikusirik erakundearen babesa aldarrikatuz. Izan ere, Frantziak, Belgikak eta Alemaniak eragotzi egin dute, Iraken aurkako balizko erasoaren aurrean, NATOk Turkia defendatzeko planak ja abiatzea. Eta Ankarak berehala babes eskaera egin du. /19-20

EUSKARA

Aurrez epaileek baliogabetutako dekretua onartu du Nafarroako Gobernuak

Dekretu bera da, formazko akatsak zuzenduta /12

ATENTATUA ANDOAINEN



JUAN HERRERO / EFE

Rosa Díez, Maite Pagazaurtundua eta Ignacio Latierro, Aski Da-k Andoainen egintako ekitaldian.

PSE-EEren saioa Andoaingo alkatea kargutik kentzeko

PPren babesa jaso dute sozialistek, baina EAJrena ez

Joseba Pagazaurtundua Andoaingo udaltzainburua atzo ehortzi zuten, eta haren aurkako atentatua gaitzesteko elkarretaratze ugari egin ziren. PSE-EEK Andoaingo Udalean Jose Antonio Barandiaran al-

katea (Sozialista Abertzaleak) kargutik kentzeko zentsura mozioa jarriko duela jakinarazi zuten; PPk bat egin zuen egitasmoarekin, baina EAJk ez. Eta gehiago osoa behar da ekimenak aurrera egiteko. /6-9